## AURKEZTEKO EPEA
## FECHA DE PRESENTACIÓN

2016ko urriaren 30 arte
30 de octubre de 2016

## ARGIBIDEA ETA OINARRIAK
## INFORMACIÓN Y BASES

asociacioninmersiones@gmail.com
www.inmersionesgasteiz.wordpress.com


EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA

eremuak
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

atiza

INMERSIONES
ASOCIACIÓN CULTURAL • KULTUR ELKARTEA




# CULTOS

Inmersiones 2016

## "CULTOS"

Ez ditugu gogoko gai errazak. Praktika artistikoan "gurtzak" (kultuak…) aipatzea garaikidetasun ariketa bat da, baita gure egungo zirkunstantziari buruzko begirada kritiko bat ere.

Zerk jartzen du artea harremanetan gurtzarekin? Nola heldu arte-irudiak-gurtzak sekuentziari? Zer-nolako "gurtzez" hitz egiten du arteak egun? Egungo egunean, artea gurtza da, ala zerbait ezkutua?

Proposamen artistiko ausartak bilatzen ditugu, horrelako gaiei heltzeko pronto, baita konbentzioak eta aurrez ezarritako ideiak gaindituko dituztenak ere; hara, "gurtza/e"n esanahiari buruzko irakurketa berriak eta berrituak nahi ditugu. Inmersiones 2016k galdera hauxe botatzen du: "Gurtza" kontzeptuak arte- eta kultura-ekoizpenetan nolako (askotariko) ikuspegiak eskaintzen ote ditu gure ingurunean? Ekoizpenoi ospakizunerako espazio bat ere eskaintzen die.

## DEIALDIA

Inmersiones 2016 Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan bizi diren kultura-, gizarte- eta arte-arloko eragileei zuzenduta dago (sortzaileei, ikertzaileei, bitartekariei eta ekintzaileei). Parte-hartzaile guztiek lotura hori adierazten duen dokumentuaren kopia bat eman behar dute (NAN, erroldatze-ziurtagiria edo ikasle- karneta).

Parte-hartzaile guztiek izena emateko fitxa behar bezala bete eta eman behar dute.

Inmersionesen, kongresuko hizlari-lanetan parte har dezakezu, edo ekintza bat eginez, edota aurtengo tailerrera bertaratuz.

a) **ERAGILEEN BILTZARRA: artistak, taldeak, sortzaileak, ikertzaileak eta bitartekariak.**

Inmersionesen talde eragileak 8 eragile aukeratuko ditu gehienez, eta haien proposamenak erlazioa izan behar du Inmersiones 2016en gaiarekin. Talde eragileak eskubidea izango du biltzarrera gutxienez bi eragile gonbidatzeko. Deialdiaren bidez aukeratutako eragileek konpromisoa hartzen dute Gasteizen beren prozesu eta proiektuen aurkezpen publiko bat egiteko, abenduaren 3an.

Ikusizko arteak edozein formatutan, performanceak, ekintzak, ekarpen teorikoak, etab. 15 minutu izango dute horretarako, gehienez (inondik ere ezin da denbora hori gainditu). Gainera, hizlari bakoitzak mahai-inguru batean parte hartuko du gero, eta eztabaida-taldean parte hartu behar du eztabaida-jardunaldi osoan.

Aukeratutako eragile bakoitzak 200 euro jasoko ditu bere aurkezpenaren ordainsaritzat.

b) **EKINTZAK: Hospitalarios en acción.**

Inmersiones 2016en gaiari buruzko ekintza egiteko proposamena da. Gure ustez, "ekintza artistikoa" da terminoa definitzeko koordenatu nagusiak espazioa eta denbora dituen jarduera bat. Proposamena egin daiteke Inmersionesek erabiltzen duen lokalerako, baina artistak adierazten duen espazio publikorako ere proposa daiteke, betiere beharrezkotzat eta ezin bestekotzat jotzen denean. Inmersiones, espazio publikoa erabiltzeko dauden beharrizanak eta behar baimenak lortzen saiatuko da. Horretarako, proiektuaren, bere beharrizanen eta helburuen deskribapen xehea behar dugu.

Ekintzak ostiralean eta larunbatean, abenduaren 3an egingo dira arratsaldez (ordutegia zehazteke).

Artistak ekitaldirako behar informazioa emateko konpromisoa hartzen du, baita jardunaldi osoan bertan egotekoa ere, eta jendearekin eta parte-hartzaileekin hitzordua heldu arte behar diren prestaketa guztiak egiteko. Talde eragileak 4 proposamen aukeratuko ditu.

Lau aukeratuek 250 euro bana jasoko dute ordainsaritzat eta jarduera ekoizteko gastuei aurre egiteko.

c) **PRESTAKUNTZA-TAILERRAK: Artisten oinarri juridikoak eta fiskalitatea.**

2016an, gure ustez, artetik erresistitzeko giltzetako bat ezagutzea, ikastea eta tresnak partekatzea da, bizitzea tokatu zaigun garai honetan langile kulturalaren profila sendotu ahal izateko.

Horretarako, Inmersiones 2016 ek Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako artista sortu berriekin hartutako erantzukizunean kokatuta, tailer bat egitea proposatzen dugu abenduaren 2an, ostiral arratsaldez.

Biziraupena ezin besteko baldintza da ekoizpen artistikoan jarduteko. Horretarako, albait tresna gehien kontrolatu behar ditugu, baita bidera ateratzen zaizkigun oztopoei aurre nola egin ezagutu ere.

Edonola ere, gure jarduera ekonomiko eta legalaren kudeaketak, alde batetik, baditu beharrizan administratiboak eta, bestetik, gure egoerari duintasuna ematen dioten uste militante sendoak.

Artistek beren ekonomia kudeatzeko tailerrean, sarrera txiki bat egingo dugu artista-lanean gure jarduera ekonomikoari aurre egin eta kontrolatzeko behar ditugun elementuei eta gaiei buruz.

d) **ALDARE PRIBATUEN ARGAZKI LEHIAKETA.**

Gogoan izan martxan dela aldareei buruzko lehiaketa bat, eta oinarriak gure blogean ikus ditzakezuela: www.inmersionesgasteiz.wordpress.com.

## TEMA: CULTOS

No nos gustan los temas fáciles. Hablar de "Cultos" desde la práctica artística supone un ejercicio de contemporaneidad y una mirada crítica a nuestra circunstancia actual.

¿Qué relaciona el arte con el culto? ¿Cómo abordar la secuencia: arte-imágenes-cultos? ¿De qué "cultos" habla el arte de hoy en día? ¿Es el arte un culto o algo "o-culto?

Buscamos propuestas artísticas audaces que se pregunten por este tipo de cuestiones, que superen las convenciones y las ideas preconcebidas, que ofrezcan nuevas lecturas y renovadas visiones sobre el significado de "Culto/s".

Inmersiones 2016 se pregunta por los diferentes enfoques que ofrece el concepto de "culto" en las producciones artísticas y culturales de nuestro entorno y les ofrece un espacio de celebración.

## CONVOCATORIA

Inmersiones 2016 está dirigido a agentes culturales, sociales y artísticos (creadorxs, investigadorxs, mediadorxs y activistas) que vivan, estudien o trabajen en el País Vasco y Navarra. Todos los participantes tienen que aportar una copia del documento que certifique esta vinculación (DNI, certificado de empadronamiento o carné de estudiante).

Cada participante deberá adjuntar debidamente cumplimentada la ficha de inscripción.

Puedes participar en Inmersiones como ponente en el congreso, realizando una acción y/o asistiendo al taller de este año.

a) **CONGRESO DE AGENTES: artistas, colectivos, creadorxs, investigadorxs y mediadorxs**.

El grupo motor de Inmersiones seleccionará hasta un máximo de 8 agentes cuya propuesta guarde relación con la temática de Inmersiones 2016. El grupo motor se reserva el derecho de invitar al menos a dos agentes al congreso. Los agentes seleccionados por convocatoria se comprometen a realizar una presentación pública de sus procesos y proyectos el día 3 de diciembre en Gasteiz.

Artes visuales en cualquier formato, performances, acciones, aportaciones teóricas, etc. con un tiempo máximo de presentación de 15 minutos (sin sobrepasar este tiempo bajo ningún concepto). Además cada ponente deberá formar parte del grupo de discusión durante toda la jornada de debate.

Cada agente seleccionado recibirá 200 € como compensación económica por su presentación.

b) **ACCIONES: Hospitalarios en acción.**

Consiste en una propuesta de acción relativa al tema de Inmersiones 2016. Entendemos "acción artística" como una actividad en la que el espacio y el tiempo son las coordenadas principales para la propia definición del término. La propuesta puede plantearse en el local que utiliza Inmersiones, pero también puede plantearse en el espacio público que señale el/la artista, siempre que así se requiera y sea indispensable. Inmersiones intentará satisfacer las necesidades y los permisos necesarios derivados del uso del espacio público. Para ello se precisa una descripción detallada del proyecto, sus necesidades y objetivos.

Las acciones tendrán lugar el sábado 3 de diciembre por la tarde (horario por determinar).

El/la artista se compromete a facilitar la información necesaria para la producción del evento y a estar presente durante toda la jornada realizando todos los preparativos necesarios hasta la cita con el público y los participantes. El equipo motor seleccionará 4 propuestas.

Cada unx de lxs cuatro seleccionados recibirá 250 € en concepto de honorarios y para cubrir los gastos de producción de la actividad.

c) **TALLERES DE FORMACIÓN: Marco jurídico y fiscalidad de los artistas.**

En esta edición de 2016 creemos que una de las claves para la resistencia desde el arte es conocer, aprender y compartir herramientas que permitan fortalecer el perfil del trabajador cultural en la época que nos ha tocado vivir.

Para ello, y como parte de la responsabilidad que asume Inmersiones 2016 para con los/as artistas emergentes del País Vasco y Navarra proponemos la realización de un taller, el día viernes 2 de diciembre por la tarde.

La supervivencia se erige como condicionante imprescindible en el desempeño de la producción artística. Para ello, debemos controlar todas las herramientas posibles así como saber sortear los obstáculos que se nos presentan.

Con todo, la gestión de nuestra propia actividad económica y legal se compone por un lado de necesidades administrativas y por otro de convicciones militantes que dignifiquen nuestra situación.

El taller de auto-gestión económica para artistas plantea una pequeña introducción a los elementos y cuestiones que debemos afrontar y dominar para nuestro desempeño económico como artistas.

d) **CONCURSO FOTOGRÁFICO DE ALTARES PRIVADOS.**

Os recordamos que está en marcha un concurso de altares, las bases están disponibles en nuestro blog: www.inmersionesgasteiz.wordpress.com